

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak%-6,7 jaitsi ziren 2009ko lehenengo hiruhilekoan

Balio errealetan, prezioen igoeraren eragina kenduta, jaitsiera urte arteko %-7,5 da

Eustatek emandako datuen arabera, 2009ko lehenengo hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %-6,7 jaitsi ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean. Hazkunde nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, %-7,5eko urte arteko tasa negatiboa da balio errealetan.

Urte arteko hazkunde-tasa errealak. Euskal AE

Urtea	Hiruhilekoa	Txikizkako	Espezializatua	Ez-espezializatua (Azal. Ertain eta handiak)
2007	I	3,7	4,3	2,1
	II	0,1	0,7	-0,9
	III	1,7	2,3	0,5
	IV	0,4	0,4	0,3
2008	I	-1,9	-0,8	-2,8
	II	-3,4	-4,3	-2,4
	III	-0,7	-0,4	-2,3
	IV	-6,0	-6,2	-5,5
2009	I	-7,5	-9,0	-4,6

Iturria: EUSTAT

Txikizkako merkataritza espezializatuaren salmenta nominalak %-8,4 jaitsi ziren 2009ko lehenengo hiruhilekoan, 2008ko hiruhileko beraren aldean. Jaitsiera nominal hori, azpisektoreetako prezioen bilakaeraren emaitza gisa, %-9,0ko jaitsiera erreal bihurtu da.

Balio nominaletan, txikizkako merkataritza ez-espezializatua %-3,0 jaitsi da urteko lehenengo hiruhilekoan. Prezioen bilakaera kontuan hartuta, urte arteko tasa errealean jaitsiera zenbatetsia %-4,6 izan da, 2008ko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan, urte arteko jaitsiera-tasarik handiena Etxeko hornikuntzaren sektorean izan zen: %-13,9ko jaitsiera nominala, %-14,9koa balio errealetan. Elikadurak jaitsiera zertxobait neurritsuagoa izan du, %-10,1 uneko euroetan eta %-11,9 finkoetan. Kontsumoko beste ondasunen salmentak %-7,9 jaitsi ziren balio nominaletan, %-10,0 balio errealetan.

Pertsonaren hornikuntzako produktuen salmentak %-3,0 jaitsi dira balio nominaletan eta hori %-1,2ko jaitsiera bihurtzen da errealetan.

Txikizkako merkataritza ez-espezializatuaren arloan, elikagaiak nagusi diren azpisektoreetan %-3,1ekoa izan da urte arteko salmenten jaitsiera. Gainerako produktuak nagusi diren azpisektoreek %-3,0koa izan dute. Euro finkoetan %-4,6 eta %-4,2 jaitsi dira hurrenez hurren.

Lurralde historikoen arabera, 2009ko lehenengo hiruhilekoko txikizkako sektorearen salmenten jaitsierarik handiena Araban izan zen, urte arteko %-7,4; txikizkako merkataritza espezializatuaren salmentak %-9,0 jaitsi ziren eta %-3,6 ez-espezializatuarenak.

Gipuzkoan %-6,8 jaitsi ziren txikizkako merkataritzaren salmentak; txikizkako merkataritza espezializatuaren salmentak %-7,7 jaitsi ziren eta %-4,9 ez-espezializatuarenak.

Bizkaiak antzeko bilakaera izan du txikizkako salmentetan: %-6,5ko jaitsiera izan du. Txikizkako merkataritza espezializatuko salmentak %-8,6 jaitsi dira eta ez-espezializatuetakoko salmentak %-1,9, betiere urte arteko aldakuntza nominaleko terminoetan.

Euskal AE osoan, 2008ko lehenengo hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean landunen kopurua %-2,3 murriztu da 2009ko lehenengo hiruhilekoan.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Javier Aramburu

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp